



Musikaren Egüna, azken bat bideko

ANDREA ZUBOZKI JAVIER MONSALVE

Urtero Musikaren Egünera noa programazioari behakorik eman gabe, eta aldi guziz egitarauaren aberastasanak harriturik uzten nau. Aurtengoa azken edizioa izanki, Urdiñarbera bihotzeko zimiko ttipi batekin joan nintzen, martxa baten azken noten entzutera.

Lyongo (Frantzia) Chromb taldearen azken kantua entzun eta ber hiriko Poil (euskaraz ilea) hirukotea oholtzara igo da. Bateriak, baxuak eta teklatuak osatzen dute math rock indartsua ardatz duen taldea. Orain arte lurrean pausatua ziren ipurdiak fite altxatu dira eta lehen buruak astintzen hasi dira, erritmoak ez badira ere segitzeko errazak.

Groove ikaragarri batekin, bateria eta baxuak esaldi luze eta korapilatsuak errepikatzen dituzte teklatu-jotzaileari jolasteko eremu zabal eta sendoa eskainiz. Azken horrek, gehienbat soinu monofonikoen bidez, inprobisazio luzeak

egin ditu, baxuaren zuzentasunarekin kontrastea eginez. Bateria bien artean da, beti hari baten gainean, sekula erori gabe. Free jazz eta rock progresiboaren bidegurutzetan, hirukoteak eszena gainean plazera hartzen duela argi da, nahiz eta bakoitzak kontzentrazio handia atxiki saio osoan.

Taldeak *Sus* izeneko bere azken lana aurkeztu digu kantu guziak diskoaren ordenan joz. Kantuak Okzitaniako poetatik inspiratzen direnez, hiru taldekideek okzitaniaraz kantatu dute, hiru bozetan. Jadanik berezia den musikari polifoniak gehituta, giro mistikoak sortu dituzte. Trantzean sartu gaituzte.

Soinu landua dute denek. Teklatu-jotzaileak bi Midi teklatu darabiltza, delay efektuekin. Gitarra baten gisara, frekuentzia gorenen bila dabil baxuari lekua uzteko. Bateria nahiko minimalista da, bi tinbalekin, eta zinbalek kolore

POIL MUSIKA TALDEAREN EMANKIZUNA

NOIZ: ekainak 9

NON: Urdiñarbe

beroa dakarte, dirdira soberakinik gabe. Baxuak aldiz, distortsio naturalari esker, soinu gizen baina zehatza eskaini digu.

Publikoko anitz loriatu bagara ere, Poilen musika ez da hain entzunerraza. Horien ondotik eszena hartu duen A-Wa taldea entzuteko lekua betetzen ikusteak baieztatu dit. Baina Musikaren Egüna indarra betidanik hori izan da: asteburu batez musikazaleak eta bestazaleak batzea.

Poil taldeak kolektibo aberats eta hipraktibo baten ezagutza ahalbidetu dit: Lyongo Dur et Doux labela. Hemeretzi taldek osatzen dute, eta horien artean talde bereziak ere atzeman daitezke, besteak beste Piniol, Poil eta Ni taldeen arteko topaketak eman duen proiektua. Bi baxuk, bi gitarrek, bi bateriak eta teklatuak osatzen dute zazpikotea. Musika tekniko eta indartsua gustatzen bazazue, ez duda! ●